


Euskal AEko industria-prezioak % 1,2 jaitsi ziren 2020ko apirilean aurreko hilaren aldean

2019ko apirilarekin alderatuta, industria-prezioak % 4,6 jaitsi ziren

Euskal AEko industria-prezioak % 1,2 jaitsi ziren 2020ko apirilean, aurreko hilabetearekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera. Apirileko urte arteko tasa, zeinek azken hamabi hilabeteetako prezio industrialen aldakuntza jasotzen baitu, -% 4,6koa izan zen.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du ezen 2020ko apirilean aurreko hilaren aldean prezioetan hazkunderik nabarmenenak erregistratu dituzten sektoreak izan direla *Erauzketa-industriak* (% 1,4) eta *Ura* eta *Industria kimikoa*, zeinetan % 1,3ko igoera izan baita biotan. Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadarik handienak: *Kokeriak eta petrolio-fintzea*, % 12,7ko beherakadarekin; *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, % 0,9rekin behera; eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, % 0,7ko jaitsierarekin.

Ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatuta, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,5 igo dira, aurreko hilabetearekin alderatuta. Aitzitik, *Energia* % 6,6 jaitsi da, *Bitarteko ondasunak* % 0,4 eta *Kontsumo-ondasunak*, oro har, % 0,6 jaitsi dira. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorretan* % 0,7 jaitsi dira prezioak, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorretan*, berriz, % 0,2.

Urtetik urterako datuetan, 2020ko apirila 2019ko apirilaren aldean, prezioetan hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza*, % 7,0ko igoerarekin, eta *Garraio-materialean eta Erauzketa-industrietan*, bietan % 3,3ko hazkundearekin. Alderantziz, prezioetan beherakadarik handienak sektore hauetan gertatu dira: *Kokeriak eta petrolioaren finntzea* (% 37,4 behera), *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 3,6 behera) eta *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (% 2,6ko jaitsiera).

Helburu ekonomikoaren arabera ondasetalde handien prezioen aldaguntza positiboa izan da urte arteko aldian *Ekipo-ondasunentzat* eta *Kontsumo-ondasunentzat* oro har, % 1,5eko igoerarekin bietan. Azken horien artean, % 1,6 igo dira *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak eta % 0,8 *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak*. Aitzitik, prezioak jaitsi egin dira *Energiaren* sektorean (% 22,3ko jaitsierarekin) eta *Bitarteko ondasunen* (% 1,2koa).

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Apirila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2020api / 2020mar	2020api / 2019api	2020api / 2019abe
INDIZE OROKORRA	100,1	-1,2	-4,6	-3,8
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	109,4	1,4	3,3	3,7
Manufaktura-industria	100,5	-1,3	-5,0	-4,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	97,5	-0,9	-2,6	0,2
Ura	109,4	1,3	2,9	4,7
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	104,3	-0,6	1,5	-0,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,5	-0,2	0,8	0,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	104,4	-0,7	1,6	-0,3
Ekipo-ondasunak	108,5	0,5	1,5	1,0
Bitarteko ondasunak	101,9	-0,4	-1,2	-0,5
Energia	85,8	-6,6	-22,3	-19,4

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

OHARRA COVID-19AREN KRISIAREN ERAGINARI BURUZ APIRILEKO IPRI-N

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Une horretatik aurrera hartutako salbuespenezko neurrien ondorioz, industria-enpresa asko apirilean partzialki edo osoki geldiarazi dira.

Egoera horrek berekin ekarri du Industria Prezioen Indizea eraikitze behar den informazioa lortzeko behar den ahalegina handitu izana, bai inkestatutako enpresen aldetik, bai informazioa biltzen eta tratatzen duten langileen aldetik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik, aparteko zirkunstantziak gorabehera. Haiei esker, apirileko indizea kalkulatu da laginaren % **96,48ko estaldurarekin** -laginaren informazioa maiatzear zehar jaso da-.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62